ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA, HERNANIKO ELIZATXO IKASTOLAKO PSIKOGELA ERABERRITZEKO OBRA, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ KONTRATZEKO.

LABURPEN TAULA

A) KONTRATUAREN XEDEA
Hernaniko Elizatxo ikastolako psikogela eraberritzeko obra, ARI ARKITEKTURAk idatzitako proiektuarekin bat etorriz. CPV kodea: 45214000-0
B) LIZITAZIOAREN GEHIENEKO AURREKONTUA
Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua:106.245,00 € BEZa %21: 22.311,45 € **Guztira: 128.556,45 €** **Balio zenbatetsia: 106.245,00 €**
C) LIZITATZAILEAREN KAUDIMEN EKONOMIKOA, FINANTZARIOA ETA TEKNIKOA EGIAZTATZEKO AGIRIAK
500.000.- euroko balio zenbatetsia baino txikiagoa duten obra kontratuetan kaudimena egiaztatu ahal izango da, bi hauetako modu batean: behean zehaztutako sailkapena egiaztatuz edo plegu honetako 11. klausulan ezarritako kaudimen ekonomiko eta kaudimen teknikoko baldintzak egiaztatuz. Sailkapena:

TALDEA	AZPITALDEA	KATEGORIA
C	1	1
C	4	1

D) PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA
20 egun natural, kontratatzailearen profilean argitaratzen denetik kontatzen hasita
E) ESLEIPEN-IRIZPIDEAK
<u>Automatikoki baloratuko diren irizpideak: (100 puntu arte)</u> • eskaintza ekonomikoa.....75 puntu arte • berme epea handitzea.....10 puntu arte. • Emakumeak kontratatua izatea obraren exekuzioan ..... 9 puntu arte • Enpresaren ingurumen kudeaketa egokiaren ziurtagiria..... 6 puntu arte.
F) KONTRATUA BURUTZEKO EPEA
7 aste, zuinketa akta sinatzen denetik. Lanak ikastola itxita dagoela egin behar direnez, obrak egiteko epea honako hau da: 2022ko ekainaren 27tik 2022ko abuztuaren 15era arte
G) BEHIN-BEHINEKO BERMEA
Ez da eskatzen.
H) BEHIN BETIKO BERMEA
Esleipen prezioaren %5a, Bez kanpo

KLAUSULAK

I. <u>KONTRATUAREN EDUKIA</u>

1. KONTRATUAREN XEDEA. LOTEAK. ALDAKETAK EDO ALTERNATIBAK

1.1 Agiri honetan oinarrituta idazten den kontratuaren xedea izango da Hernaniko Elizatxo ikastolako psikogela eraberritzeko obra, ARI ARKITEKTURAk idatzitako "PSIKOMOTRIZITATEA ESTALKIPEAN" proiektuarekin bat etorriz, eta halaber, espedientean ageri den dokumentazio teknikoarekin bat etorriz; izan ere, azken honek kontratu-izaera edukiko du eta horren helburua azaroaren 8ko 9/2017, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen (SPKL) 13. artikuluaren barruan sartua dago.

CPV kodea: 45214000-0

1.2. Loteak: Kontratu honen xedea lote bakarrean jaso da.

1.3 Aldaketa edo alternatibak: ez dira onartuko.

2. EGITEKO EPEA

Kontratu honen helburu diren obrak burutzeko epea hau da: **7 aste** zuinketaren egiaztapen-akta izenpetu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Lanak ikastola itxita dagoela egin behar direnez, obrak egiteko epea honako hau da: 2022ko ekainaren 27tik 2022ko abuztuaren 15era arte

Kontratu honen esleipendunak, nolanahi ere, Obra Zuzendaritzaren jarraibideak bete beharko ditu, lan horiek koordinatzeari begira.

Esleipenduna behartua egongo da kontratua gauzatzeko finkatutako gehieneko epea betetzera, eta halaber, ezar litezkeen epe partzialak eta epe horiek zuinketaren egiaztapen-akta sinatu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira kontatzen esleipendunarentzat.

Aipatutako epe horiek igarotzen baldin badira, kontratista berandutze-egoeran dagoela ulertuko da, eta ez da horri buruz inolako ohartarazpen egin beharrik izango.

3. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua **106.245,00€** izango da, eta BEZari dagokion **22.311,45€** gehituta, guztira **128.556,45€**ko zenbatekoa izango du, baina edonola ere, enpresa lehiatzaileek zenbateko hori beherantz hobetu ahal izango dute beren eskaintzetan.

Ulertuko da eskaintza ekonomikoak barne dituela proiektuan jasotako aleko prezio guztiak. Nolanahi ere, lizitatzaileak prezio desglosatuen taula ere aurkeztu beharko du.

Horren barruan,gastu guztiak sartuak daude; lan arriskuen prebentzioa, garraioa, gastu orokorrak, industri irabazia, eta kontratua burutzeko beharrezko diren gastu orokor guztiak, baita ezargarri diren zerga guztiak ere, Balio Erantsiaren Zerga barne.

Aurrekontu hori gainditzen duten eskaintzak baztertuak izango dira.

Eskaintza ekonomikoa egokia izango da esleipendunak indarrean dagoen hitzarmen sektoriala ezartzearen ondorioz sortzen den kostuari aurre egiteko; ezingo dira ordaindu hitzarmenean jasotako orduko prezioa, Gizarte Segurantza gehituta, baino soldata baxuagoak.

Kontratuaren balio zenbatetsia:**106.245,00€** izango da.

4. FINANTZATZEA

Behar hainbateko aurrekontu-kreditua dago kontratu hau betetzeak Udalari sor diezazkiokeen obligazioei aurre egiteko.

Aurrekontu partida: 1 05.622.02.323.10 2020 (6639)

5. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Prezioak ez dira berrikusiko.

6. NOLA ORDAINDU

Kontratuaren prezioa hilero Obra Zuzendaritzak egindako lanei buruzko ziurtagiriaren bidez ordainduko da, aurrez enpresa esleipendunak dagokion faktura (paperean edo elektronikoki) aurkeztuta, SPKLren 198 artikuluan jasotakoaren arabera.

Abenduaren 27ko 25/2013 Legeak xedatzen duenaren arabera, faktura elektronikoa ematera derrigortuta dauden entitateek fakturak formatu elektronikoan Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez bidali beharko dituzte, helbide honetara: https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua, Hernaniko Udala atxikita baitago, horretarako Udalaren DIR3 kodeak erabiliz:

1. Kontabilitate Bulegoa: L01200408
2. Organo Kudeatzailea: L01200408
3. Unitate Izapidetzailea: L01200408

7. BERMEAK

7.1 Behin behineko bermea: ez da eskatzen.
7.2 Behin betiko bermea: Esleipen prezioaren %5a, Bez kanpo

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

8. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu hau **prozedura ireki sinplifikatua jarraituta** esleituko da, SPKLren 156 eta ondorengo artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Esleipen irizpideak ondorengoak izango dira:

Automatikoki baloratuko diren irizpideak . Gehienez 100 puntu.

a) ESKAINTZA EKONOMIKOA (0- 75 puntu)

- % 0 eta 20 bitarteko beherakaden kasuan, 3 puntu emango dira puntu portzentual bakoitzeko.

- 20tik gorako beherakadak izanez gero, beherakada portzentual handiena egiten duen eskaintzari emango zaio 75 puntuko gehienezko puntuazioa, eta %20tik gorako beherakada egiten duten

gainerako eskaintzek bi puntuen arteko interpolazio linealaren bidez lortuko lukete puntuazioa.

b) BERME EPEA HANDITZEA (0- 10 puntu)

Pleguan zehaztutako gutxieneko berme epearen **zabaltzea** balioztatuko da, proportzionaltasun irizpideari jarraituz, baremo honen arabera:

- 6 hilabeteko zabaltzea 2 puntu
- 12 hilabeteko zabaltzea 4 puntu
- 18 hilabeteko zabaltzea 6 puntu
- 24 hilabeteko zabaltzea 8 puntu
- 30 hilabeteko zabaltzea 10 puntu

c) KONTRATUAREN EXEKUZIOAN EMAKUMEEN KONTRATAZIOA (0-9 puntu)

Aurkezten den ekipo teknikoan edo exekuzioan emakumeak lanaldi osorako kontratatuta izatea edo kontratu berriak izatea balioetsiko da, 3 puntu emanez emakume bakoitzeko eta lanaldi osoan. Kontratazioa lanaldi osoa baino gutxiagokoa izanez gero, proportzionalki balioetsiko da. Aipatu emakumeak zuzenean parte hartu behar dute ekipo teknikoan edo obra exekuzioan, bai kontrata nagusiaren enpresan edo proposatutako azpikontrata enpresetan, (ez dira baloratuko enplegatua emakumea izanik obran egon behar ez duten lanpostuak.)

d) INGURUMEN KUDEAKETA ZIURTAGIRIA (0-6 puntu)

Enpresak ingurumen kudeaketa aplikatzen duen ziurtagiri bat aurkeztea baloratuko da, araudia bete eta obra ingurumen jarduera egokiak erabiliz egikaritzen dela ziurtatzen duena. Gehienez 6 puntu lortu ahal izango dira honela banatuak:

- EMAS.....6 puntu
- ISO 14001.....5 puntu
- EKOSCAN.....4 puntu

9. LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA

Lizitazio honen iragarkia Hernaniko Udaleko kontratatzailearen profilean argitaratuko da (www.hernani.eus) Euskadiko kontratazio plataforman kokatu dagoena.

10. LIZITATZAILE-ERREGISTRO OFIZIALA

SPKLren 159.4.a) artikuluaren arabera, prozedura sinplifikatu bidezko lizitazioetara aurkezten diren lizitatzaile guztiek Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean izena eman beharko dute, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denerako, konkurrentzia mugatzen ez bada betiere.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean izena ematen duten lizitatzaileek ez dute aurkeztu beharko, bertan jasotakoaren arabera eta kontrako frogarik ez badago, kontratatzeko baldintzak (nortasuna eta jarduteko gaitasuna ordezkaritza, profesional edo enpresa gisa duten gaikuntza, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, eta sailkapena) betetzen dituztela egiaztatzeko frogagiririk, ezta erregistroan jasota utzi beharreko kontratatzeko debekuren baten pean ez daudela egiaztatzeko frogagiririk ere.

SPKLren 139.1. artikuluaren arabera, proposamenik aurkezteak berekin dakar Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialeko edo Europar Batasuneko kide den estatu bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetako datuak kontsultatzeko baimena ematea Kontratazio Mahaiari eta Organoari.

11. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Gaitasun juridikoa eta jardutekoa duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, SPKLREN 71. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta.

Halaber, beren kabuz nahiz baimendutako pertsona batek ordezkaturik egin ahal izango dute hori, horretarako berariaz emandako ahalorde askietsia erabiliz. Pertsona juridikoa bertako kideren batek ordezkatzen duenean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Kasu batean nahiz bestean, arestian aipatutako kontratatzeko debekuek ordezkariari ere eragingo diote.

Gainera, enpresa lehiatzaileen jarduera nagusiak zerikusi zuzena izan behar du kontratu honen xedearekin, eta helburu hori behar bezala burutzeko behar adina giza baliabide eta baliabide material eduki behar ditu bere erakundeak.

Enpresariek, halaber, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

Enpresari batzuk kontratazioan batera parte hartzeko interesatuta daudenean, aldi baterako enpresa elkartea sortu ahal izango dute horretarako. Esleipena bere alde egiten den arte ez da beharrezkoa izango elkarte hori eskritura publikoaren bidez formalizatzea. Kasu horretan, enpresariak modu solidarioan erantzungo dute Administrazioaren aurrean, eta elkartearen ordezkari edo apoderatu ahaldun bakarra izendatu beharko dute, eta horrek kontratutik eratortzen diren eskubideak gauzatzeko eta obligazioak betetzeko adinako ahalmenak izango ditu, kontratua amaitu arte.

Kaudimea egiaztatzeko bitartekoak:

Lizitatzaileek berdin egiaztatu ahal dute beren kaudimena ondoren zerrendatzen diren termino eta bitartekoetan kaudimen ekonomiko, finantzario eta profesionalaren betekizun espezifikoen bidez edota Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioak edo Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailak emandako sailkapen ziurtagiria, obra-kontratista gisa inskribatuta dagoela egiaztatzen duena, laburpen taulan adierazitako Taldea, Azpitaldea eta Kategorian sailkatuz.

- Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, bitarteko hau erabilita egiaztatu beharko da:

Kontratatu nahi den eremuari dagokion urteko negozio bolumena enpresariaren jarduerak hasteko edo eratzeko eta eskaintzak aurkezteko datak kontuan hartuta azkeneko hiru urteetako bolumen handieneko urteari dagokiona, 70.000.- euro edo handiagokoa izan behar du.

Lizitatzailearen edo hautagaiaren negozioen urteko bolumena bere urteko kontuen bidez, onartuak eta Merkataritza Erregistroan jasoak, egiaztatuko da, eta bestela, inskribatuta egon behar dueneko Erregistro Ofizialean jasota dauden kontuen bitartez. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko enpresari indibidualek beren urte negozioen bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute.

- Kaudimen teknikoa, bitarteko hau erabilita egiaztatu beharko da:

Azkeneko bost urteetan egindako obra nagusien zerrenda, zenbatekoa, datak eta horiek norentzako egin diren, publiko edo pribatuarentzako, aipatuz.

Egindako zerbitzuak edo lanak egiaztatuko dira organo eskudunak egin edo ontzat emandako ziurtagirien bitartez, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatua denean, honek egindako ziurtagiri baten bitartez edo, ziurtagiri horren faltan, enpresariak eginiko aitorpenaren bitartez; bere kasuan, ziurtagiri hauek zuzenean kontratazio organoari igorriko dizkio eskumena duen agintaritzak.

Gutxieneko baldintza izango da egikaritze handieneko urtean pilatutako urteko zenbatekoa 70.000 euroren berdina edo handiagoa izatea,kontratuaren objektu den obraren talde bereko edo azpitalde bereko obratan, edo azpitalde desberdinetako lanak daudenean garrantzi handiena duen talde edo azpitalde bereko obratan.

Zerrendan adierazitako obren artean hartzailea sektore publikoko erakunde bat izan denetan egindako egikaritza egokiaren ziurtagiriak zuzenean kontratazio organoari igorri ahal izango dizkio zerbitzuak kontratatu dituen

- **500.000.-euro baino gutxiagoko balio zenbatetsia duten kontratuetan**, kontratista enpresa berria baldin bada, halakotzat hartuta bost urtetik behera dituena, bitarteko hau erabilita egiaztatu beharko da:
  Lanak egiteko garaian edukiko duen makinaria, materiala eta ekipo teknikoa aipatzen duen aitorpena, eta bidezkoak diren egiaztagiriak erantsiko zaizkio.

- **Aldi baterako enpresa-elkartearen kasuan**, aldi baterako elkartearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala erabakitzeko, hura osatzen duten bakoitzarentzat egiaztatutako ezaugarriak batuko dira.

  Sailkapenaren betekizuna betetzen den baloratzeko balioztatzeko, taldean parte hartzen duten enpresariei dagokienez, kontuan hartuko dira, arauz zehazten den moduan, haietako bakoitzaren ezaugarri bateratuak, berei dagokien sailkapenetan adieraziak.

  Nolanahi ere, bateratzeko, enpresa guztiek obra-enpresaren sailkapena lortu beharko dute aurretik, betiere SPKLren 69. artikuluaren 5. atalean espainiarrak ez diren Europar Batasuneko estatu kideetako eta sinatu duten estatuetako enpresarientzat finkatutakoaren kalterik gabe.

  Sailkapenak bateratzeko erregimena arauz finkatuta dagoena izango da.

  Kontratua enpresarien aldi baterako elkarte bati esleituko balitzaio, elkarteak eskritura publikoan egiaztatu beharko du eraketa, eta elkarte horri emandako IFZ ere egiaztatu beharko du, kontratua bere alde esleituzgero. Nolanahi ere, elkarteak kontratua iraungo arte iraun beharko du..

12. ESKABIDEAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, baita horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, Udal honetako Kontratazio Sailean aztertu ahal izango da bulegoak jendearentzat irekita egoten diren ordutegian, egun baliagarri guztietan, lizitazio honen iragarkia **Kontratatzailearen profilean** argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, proposamenak aurkezteko epea bukatzen den arte.

Kontratazio Sailarekin harremanetan jartzeko:

Kontratazio Saila - Gudarien plaza, 1. 20120 Hernani
Tel. 943 337024 / Faxa 943 551141 / e-posta: kontratazioa@hernani.eus

Kontratatzailearen profila: www.hernani.eus

Proposamenak www.contratacion.euskadi.eus lizitazio elektronikorako plataformaren bitartez aurkeztuko dira, kontratatzailearen profilean argitaratzen den iragarkiak emandako epearen barnean.

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du eskaintza bat baino gehiago aurkeztu. Ezingo da beste batzuekin aldi baterako batasun batean parte hartzeko eskabiderik aurkeztu, baldin eta banaka ere aurkeztu bada, eta ezingo da aldi berean batasun batean baino gehiagotan parte hartu.

Enpresa lizitatzaileek **BI ARTXIBO ELEKTRONIKO** aurkeztu beharko dituzte:

"1" Zenbakidun artxibo elektronikoa: DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA:

Hona hemen aurkeztu beharreko agiriak:

- Erantzukizunpeko adierazpena, agiri honen I. Eranskineko ereduaren arabera.

* Prozedura behar bezala aurrera eramateko beharrezkoa denean, Kontratazio Organo edo Mahaiak egiaztagiri guztiak edo zati bat aurkezteko eskatu ahalko die lizitatzaileei, baldin eta uste badu arrazoizko zalantzak daudela adierazpenaren indarraldi edo fidagarritasunari buruz, kontratua esleitu aurretik betiere.

** Hainbat enpresa aldi baterako enpresa elkarte gisa aurkezten badira lizitazio honetara, enpresari horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, Pleguko I. Eranskineko eredua jarraituz.

Aurreko paragrafoak aipagai duen adierazpen horren edo horien osagarri gisa, parte hartu behar duten enpresariek aldi baterako enpresa elkartea SPKLren 69. artikuluaren 3. atalean eskatutakoaren arabera eta kontratua suntsitu arteko gutxienezko iraupenaz osatzeko konpromisoa aurkeztuko da.

Konpromiso hori hartzeko idazkia elkartea eratzen duten enpresa guztiek sinatu behareko dute, eta honako hauek adierazi beharko ditu: aldi baterako enpresa elkarte bakoitza eratuko dutenen izenak eta inguruabarrak, elkarteko kide bakoitzaren partaidetza eta kontratuaren esleipendun gertatuz gero aldi baterako enpresa elkartea formalki eratzeko konpromisoa.

"2" Zenbakidun artxibo elektronikoa: "ESKAINTZA EKONOMIKOA - IRIZPIDE AUTOMATIKOAK"

- Proposamen-eredua, agiri honen II. Eranskinean jasotako ereduaren arabera, behar bezala beteta.

- Hala nola, prezio desglosatuen taula ere bete beharko da, III. Eranskinean jasotako ereduaren arabera, behar bezala beteta.

* Proposamenen bat ez badator bat aztertzen eta onartzen den dokumentazioarekin, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, nabarmen ezberdina bada ereduaren aldean, ageriko akats bat badu zenbatekoari dagokionez edo bidera ezin bihurtzen duen akats edo ahuluneren bat badu aurkezten duen lizitatzailearen esanetan, Kontratazio Mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu baten bidez. Ereduko hitz batzuk aldatzea edo ez jartzea, ordea,ez da izango nahikoa proposamenak baztertzeko, haien zentzua aldatzen ez bada betiere.

** Ez da onartuko ereduaren arabera idatzi ez den proposamena ekonomikorik, edo eskaintza kontuan hartzeko kontratazio-mahaiak funtsezkotzat jotzen duena argi jakitea galarazten duen omisiorik, akatsik edo ezabaketarik daukanik.

13. EZ-OHIKO EDO NEURRIZ KANPOKO BALIOAK

Ez-ohiko edo neurriz kanpoko balioak dituzten eskaintzei dagokienez, SPKLren 149 artikuluan eta Herri Administrazioen Kontratuen Araudi Orokorraren 85. artikuluan xedatutakoa beteko da.

14. KONTRATAZIO-MAHAIA

Hernaniko Udaleko Kontratazio Mahai iraunkorra izango da.

Gainera, Mahaiak etor daitezela eskatutako udal arduradun tekniko guztiak joan daitezke bertara, aholkularitza-lanak egitera.

15. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Bai hasierako deialdia bai gerta litezkeen aldaketak kontratugilearen perfilean argitaratuko dira (www.hernani.eus) helbidean. Dena dela, jakinarazteko beste moduren bat ere jo liteke egokitzat.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetan. "1" zenbakidun artxibo elektronikoko dokumentazio administratiboa irekiko da.

Kontratazio-organoak edo kontratazio–mahaiak hala eskatuta, lizitatzaileek adierazpen arduratsua zuzendu beharko dute, baldin ez bada aurkeztu edo aurkeztu dena ez badago behar bezala beteta. Halako kasuetan, eragindako lizitatzaileari edo lizitatzaileei, hiru laneguneko epea emango zaie, zuzentzeko-errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Ez bada epe horretan eskatutakoa zuzentzen, kontratazio-organo edo –mahaiak ulertuko du lizitatzaileak atzera egin duela bere eskaintzan.

Kontratazio-mahaiak "2" zenbakidun artxibo elektronikoa jendaurrean irekiko du eta profilean jasotako deialdian hala zehazten bada, zuzenean jarraitu ahal izango da bertan jasotako lotura bidez.

Egintza publikoa amaitutakoan, bilkura berean, eskaintzak ebaluatuko eta sailkatuko ditu Mahaiak. Aurrez, honelakorik bada, pleguak finkatzen dituen eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertuko ditu.

Proposamenen arteko puntuazio berdinketa egongo balitz (bi dezimaletan berdinketa) SPKLren 147.2 atalean jasotako irizpide sozialak hurrenez hurren aplikatuz erabakiko da, proposamenak aurkezteko epea bukatzen den unea kontuan hartuz.

Gero, kontratua esleitzeko proposamena aurkeztuko dio Mahaiak kontratazio-organoari, puntuaziorik onena lortzen duen hautagaiaren alde; eta zera egiaztatuko du esleipendun izateko proposatzen duen lizitatzaileari dagokionez: enpresa behar bezala eratu izana; proposamenaren sinatzaileak eskaintza egiteko ahalorde askietsia izatea; kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa izatea edo, bestela, dagokion sailkapena; eta kontratatzeko inongo debekuren pean ez egotea.

Gainera, kontratua esleitzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko eskatuko dio puntuaziorik onena ateratzen duen enpresari.

16. KONTRATUA ESLEITZEA ETA GAUZATZEA

16.1. Kontratazio Mahaiak, SPKLren 150. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kontratazio-organoari igorriko dizkio aurkeztutako proposamenak, beheranzko hurrenkeran antolatuak, eta baztertuak edo neurriz kanpokotzat jo direnak salbu, aktarekin eta esleipen-proposamenarekin batera.

16.2 Esleipen proposamenak ez du lizitatzailearen aldeko eskubiderik sortzen. Eskubideak sortuko dira lizitatzaileak kontratua sinatu edo esleipen proposamena onartzen duenean.

16.3 Mahaiak enpresari eskatuko dio (edo ABEE osatzen duten enpresei), Lizitatzaileen Erregistroan izena emanda agertzeko obligaziorik ez badago edo datu edo dokumentuetakoren bat Erregistro horretan jasota ez badago, honako dokumentazio hau aurkeztu dezaten epe berean:

16.3.1. Lizitatzailearen nortasuna egiaztatzeko dokumentuak:

- Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, nortasuna,osaera, edo hala badagokio, aldaketa eskritura bidez egiaztatuko da, baldintza hori eskatzen den kasuetan. Bestela, osaera dokumentua, estatutuak edo sortze ekintza aurkeztu beharko du jarduera arautzen duten arauak jasota, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatua, hala behar izanez gero. Pertsona juridikoak bakarrik izan daitezke esleipendun beren estatutuen edo sortze arauen arabera dagozkien helburuen eta jarduera esparruaren barneko prestazioak jasotzen dituzten kontratuak direnean, eta kontu horrek egiaztatuta egon behar du aurkeztutako dokumentazioan.

- Lizitatzailea pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionala edo baliokide den dokumentuaren bitartez.

16.3.2. Eskaintzaren sinatzailearen ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa (pertsona horrek beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten duenean).

16.3.3. Eskaintzak aurkezteko fasean egindako adierazpenaren arabera kontratatzeko daukan kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzeko dokumentazioa. (11. atalaren arabera).

16.3.4 Zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzen dituela egiaztatzen duten justifikazio dokumentuak.

16.3.5 Erantzukizun zibilaren aseguru-poliza, **Baldintzen Agiriko 19. baldintzan** aurreikusia, eta Eraikuntzako Arrisku Orotakoa.

16.3.6 Dagokion **behin- betiko bermea** aurkeztu izanaren ziurtagiria.

16.3.7 Laneko arriskuen prebentziorako agirian aurreikusitakoa bete. **(IV. ERANSKINA)**

16.3.8 Egin beharreko azpikontratuen zerrenda aurkeztu, azpikontratatutako enpresa bakoitzak egin beharreko kontratu zatiak adieraziz.

16.3.9 Esleipenduna enpresen batasun bat baldin bada, kontratua sinatu aurretik, Enpresen Aldi Baterako Batasun gisa legez eratu dela egiaztatu beharko du, eta horren IFK aurkeztu.

Errekerimendua adierazitako epean behar bezala bete ezean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza. Kasu horretan, puntuazioan hurrengoa den hautagaiaren alde esleitzeko proposamena egingo da eta dokumentazio bera eskatu zaio.

Kontratazio organoari dagokio esleipena egitea eta ebazpen arrazoitu bidez erabakiko da; erabakia esleipendunari jakinaraziko zaio eta baita gainontzeko lizitatzaileei ere. Kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua formalizazioarekin gauzatuko da, SPKLren 153. artikuluan jasotakoaren arabera.

III.- KONTRATUA BURUTZEA

17. KONTRATUA BURUTZEA

Administrazioak **Obrako Zuzendaritza Fakultatibo** bat izendatuko du eta Zuzendaritza horren ardura izango da kontratuaren xede den obra behar bezala egiten dela egiaztatzea, koordinatzea, zaintzea eta ikuskatzea.

Obra horiek Baldintzen Agiri honetan ezarritako baldintzekin bat etorriz egingo dira, eta halaber, esleipendunak Obra Zuzendaritzari ematen dizkion jarraibideekin bat etorriz. Jarraibide horiek ahoz emanak baldin badira, idatziz berretsi beharko dira lehenbailehen, alderdientzako lotesleak izan daitezen.

Pleguaren xede diren obretarako teknikarien arten obra burua egongo da. Obra burua izango da, hain zuzen, obraren eraikitzailearen eledun eta ordezkari teknikoa eta, obraren ezaugarri eta zailtasunarekiko gaitasun egokia emango dion titulazio eta esperientzia izango du (arkitektoa, arkitekto teknikoa, Eraikuntza ingeniaria,)

Obra burua izango da kontratistaren ordezkaria Udalak izendatutako kudeatzailearen eta obra zuzendaritzaren aurrean, eta, ondorioz, alde desberdinen arteko komunikazio-bide formala.

Etengabeko presentzia izan beharko du eta une oro egon beharko du Obra Zuzendaritzaren eta Udalak izendatutako kudeatzailearen eskura.

Obra-buruak obra-arduradunaren laguntza izango du, erabateko dedikazioz.

Egiaztatu beharko da bai obra-buruak eta baita obra-arduradunak ere horrelako lanetan gutxienez 5 urteko esperientzia izatea.

Kontratuaren arduraduna (SPKLren 62.art): Kontratazio-organoak kontratuko arduradun gisa pertsona fisiko nahiz juridiko bat izendatu ahal izango du, titulazio eta kualifikazio egokia eta nahikoa duena, erakunde kontratatzaileari atxikia nahiz harekin zerikusirik ez duena, eta hark gainbegiratuko du kontratua egoki gauzatzen dela, kontratuan ezarritakoarekin bat etorriz burutzen dela egiaztatuz, eta esleipendunari eta zuzendaritza fakultatiboari kontratazio-organoaren agindu eta jarraibideak helaraziko dizkio.

Kontratuaren ardura duen pertsonak eta haren laguntzaileek sarbide librea edukiko dute kontratatutako prestazioa eskaintzen den tokietara, esleipendunak izendatutako pertsonak lagunduta.

Kontratazio-organoak egindako izendapen hori idatziz jakinaraziko die Administrazioak enpresa esleipendunari eta zuzendaritza fakultatiboari. Kontratua gauzatzen den bitartean izendapen hori aldatzen baldin bada, enpresa esleipendunari idatziz ezagutaraziko zaio berdin-berdin.

Enpresa esleipenduna behartua dago, une oro, Obrako Zuzendaritza Fakultatiboaren eta kontratuko arduradunaren esku egongo den Aginduen Liburua obran bertan edukitzera, eta haiek bertan idatzi beharko dituzte obra egin bitartean izandako bisitak, gorabeherak eta aginduak. Enpresa esleipenduna behartua dago, bere kabuz edo bere ordezkariaren bitartez, agindu horiek jaso izanaren egiaztagiri egokia sinatzera.

Harrera egiteko ekitaldian behar bezala betetako Aginduen Liburua aurkeztu dadila eskatuko da, eta hura Administrazioaren esku geratuko da harrera egin ondoren.

Obra burutzeko epe orokorra **2. baldintzan** ezarritakoa izango da. Epe partzialak Lan Programan zehaztuko dira.

Zuinketa-akta izenpetzearekin batera hasiko da obra-kontratuaren burutzapena, eta hori egutegiko astebeteko epean izan beharko da, kontratua izenpetzen den egunetik kontatzen hasita.

Lan-programa onartzerakoan finkatu behar diren epe partzialak eta zuinketa-akta kontratuaren zatitzat hartuko dira.

Kontratuaren harrera SPKLren 243. artikuluan ezarritakoaren bidez arautuko da eta, halaber, Herri Administrazio Kontratuen Legearen Araudi Orokorraren 163. atalean eta hurrengoetan ezarritakoaren bidez.

Harrera egiten den unean, esleipendunak ondorengo betebehar hauek betetzen dituela egiaztatuko da bereziki:

1. Obren amaierako txukuntze-lanak egin dituela, eta beraz, esleipendunak hasierako egoeran berrezarri beharko ditu obrek eragindako inguruak eta obrek okupatu ez dituztenak.
2. Kontratua akatsik gabe bete dela.
3. Esleipendunaren lizitazio-eskaintza bete dela.
4. Exekuzio-baldintzak bete direla.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da, eta esleipendunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan galera, matxura edo kalteak izaten baditu, SPKLren 239. artikuluan adierazitako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Esleipendunari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

Ezinbesteko kasuetan, eta esleipendunaren aldetik ausarkeriazko jardunik ez badago, berari sortutako kalte eta galeren kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango du esleipendunak.

SPKLTBaren 239. artikuluan ezarritakoak izango dira ezinbesteko kasuak eta APKLAOren 146. artikuluan xedatutakoaren arabera tramitatuko dira.

18. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK

Klausula honetan jasotako betebeharrak exekuzioko baldintza berezitzat jotzen dira; horiek ez betetzeak, beraz, agiri honetan horretarako jasotako zigorrak ezartzea ekarriko du, antolamendu juridikoak aurreikusitako ondorioez gain.

<u>Kontratisten gutxieneko lan-baldintzak.</u>

- Kontratu honen xede diren obretan kontratatutako eta kasuan azpikontratatutako langileei dagokienez, esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen alorrean indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

- Lizitatzaileek adierazi beharko dute, esleipena jaso ezkero, kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa eta, halaber, eskatzen den informazio guztia eman beharko dela, behin kontratua esleitu eta gero, langileei benetan aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruz.

- Esleipendunak hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko duela, kontratua gauzatzen den denbora guztian, betiere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, soldata hura baino txikiagoa izan.

- Hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen-ebazpenean jasoko da eta, halaber, kontratatzailearen profilean argitaratuko da, enpresa esleipendunak adierazita badauka kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikagarri zaiela halako hitzarmen kolektiboa.

- lehiatzen direnek beren buruaz eta beren borondatez onesten dute gardentasun instituzionala ematea lizitazio-, esleitze- eta gauzatze-prozesuen ondorioz sortzen diren datu guztiei, prozesu horiek bukatu arte.

19. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE.

Obrak burutzen diren bitartean, esleipendunaren erantzukizun izango dira edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko nahiz pribaturi egindako kalteak eta galerak, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo obrak behar bezala ez antolatu, babestu edo seinaleztatzeagatik gertatzen badira.

Aurreko paragrafoetan zehaztutakoari begira, esleipendunak, kontratua sinatu aurretik, ondorengo aseguru-kontratuen polizaren kopia eta ordainagiriak aurkeztu beharko ditu:

a) **Eraikuntzako Arrisku Orotarako Poliza**, egindako obrek eta egiten ari direnek jasan ditzaketen kalteak estaliko dituena, aseguratu gisa Hernaniko Udala barneratuz, eta ondorengo estaldurak izango dituena:

1) Suteek, tximistek, leherketek, lapurretek, espoliazioek, talkek, trebetasunik ezak, zabarkeriak, ekintza bandaliko eta borondate txarrekoek eragindako arriskuek, naturaren arriskuek eta/edo izendatu ez den beste edozein arriskuk sortutako kalteak.
2) Beste berme gehigarri batzuk, ondokoekin lotuak:
   - Diseinu-akatsak, fabrikatzailearen arriskua.
   - Gastuak aparteko orduengatik, hondakinak ateratzeagatik, eraisteagatik, agintaritzak hartutako neurriengatik eta abarrengatik.
   - Lehendik dauden ondasunei egindako kalteak.

Arrazoia eraikuntza aldian duen edozein galera edo kalte bermatuta geratuko da, baita aldi horretan edo hurrengoetan sortzen den beste edozein ere, obra-kontratuan finkatutako betebeharrak egoki betetzearren burututako lanak egin izanaren ondorioz.

Poliza hori mantendu beharreko epealdia, gutxienez, urtebetekoa izango da obren harrera egiten denetik aurrera.

b) **Erantzukizun Zibileko Poliza**, horren orokortasuna, patronala, gurutzatua eta amaitutako lanak bere barne hartuz, aseguratu gisa kontratista, azpikontratista eta Administrazioa obren sustatzaile gisa sartuz, eta gutxienez **600.000 €**ko diru-zenbatekoa bermatuz.

c) Kontratista behartua dago obren berri ematen duten kartelak bere kontura jartzera, eta obraren berri ematen duten kartelez gain baita obrarako sarbideak adieraztekoak edo, obrak egingo diren lekuaren inguruko zirkulazioari buruzkoak eta lanak direla eta arriskutsuak izan daitezkeen guneei buruzkoak ere, eremu horretan, eremuaren mugetan nahiz inguruetan.

20. KONTRATUA ALDATZEA

1.- Behin kontratua burutzen denean interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango da klausula honetan ezarritako kasuetan edo SPKLren 205. eta 242. artikuluan ezarritako kasuetan eta bertan ezarritako mugekin.

Kontratuan aldaketak sartu behar direnean, kontratuaren zuzendaritzak beharreko proposamena idatziko du, hura justifikatzen, deskribatzen eta baloratzen duten dokumentuek osatua.

Administrazioak aldaketa onartu aurretik enpresa kontratistari entzun beharko zaio. Kontratazio organoak onartu beharko ditu aldaketak, SPKLren 191. eta 207. artikuluetan aurreikusitako prozedura tramitatu eta SPKLren 153. artikuluan xedaturikoaren arabera dokumentu administratiboa formalizatu ondoren, behin betiko bermea berregokituta, hala behar badu.

2.- SPKLren 242. artikuluaren arabera, ez dira aldaketatzat joko:

i. Gehiegizko neurketak (lanak behar bezala egiterakoan, proiektuan aurreikusitako unitateen kopurutik desberdinak izatea); betiere, guztizko gastua ez bada igotzen hasierako kontratuaren % 10 baino gehiago. Nolanahi ere, obra amaierako ziurtagirian adieraziko dira gehiegizko neurketak.

ii. Prezio berriak sartzea, Legeak eta hura garatzeko arauek finkatzen dituzten prozedurak jarraituz, kontraesanezko moduan finkatutakoak; betiere, ez badakarte kontratuaren guztizko gastua igotzea eta ez badagozkie guztira hasierako aurrekontuaren % 3 baino gehiago diren obra unitateei.

21. OBREI HARRERA EGITEA ETA BERME-ALDIA

Obrak amaitu eta, gehienez, **hilabete** pasatu baino lehen obren harrera formala egingo da, harrera aktaren bidez.

Gainera, **URTEBETEKO** berme-aldia egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta lege horren Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako berme gisa finkatuko dena.

Berme-aldi horretan obrak kontserbatzeak eragiten dituen gastu guztiak esleipendunaren kontura izango dira, eta ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango kontzeptu horrengatik.

Nolanahi ere, esleipendunak kontratua bete ez eta eraikuntzak ezkutuko akatsak izateagatik obra berme-alditik kanpo hondatzen bada, esleipendunak kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du **hamabost urteko epean**, obren harrera egiten denetik kontatzen hasita. Epe hori amaitutakoan, bestelako kalte edo galerarik gertatu ez bada, esleipendunaren erantzukizuna amaitutzat joko da. (SPKLren 244 art.)

22. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatu, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigor hauek ezarri:

- Ez-betetze horrek, hala egokituz gero, eragindako atzerapena egutegiko egun 1 eta 10 egun artekoa bada, egunean 2 euroko zigorra kontratuaren prezio osoaren 1.000 euroko.

- Ez-betetze horrek, hala egokituz gero, eragindako atzerapena egutegiko 11 egun eta 20 egun artekoa bada, egunean 3 euroko zigorra kontratuaren prezio osoaren 1.000 euroko.

- Ez-betetze horrek, hala egokituz gero, eragindako atzerapena egutegiko 21 egunetik gora bada, egunean 4 euroko zigorra kontratuaren prezio osoaren 1.000 euroko

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala dagokion epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi edo eguneko diru-zigor bat ezarri jarraian zehazten den proportzioan:

- Ez-betetze horrek, hala egokituz gero, eragindako atzerapena egutegiko egun 1 eta 10 egun artekoa bada, egunean 0,5 euroko zigorra kontratuaren prezio osoaren 1.000 euroko.
- Ez-betetze horrek, hala egokituz gero, eragindako atzerapena egutegiko 11 egun eta 20 egun artekoa bada, egunean 0,75 euroko zigorra kontratuaren prezio osoaren 1.000 euroko.
- Ez-betetze horrek, hala egokituz gero, eragindako atzerapena egutegiko 21 egunetik gora bada, egunean 1 euroko zigorra kontratuaren prezio osoaren 1.000 euroko.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

C) KONTRATUA BURUTZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintzen Agiri honetan ezarritako exekuzio-baldintza berezi horietako edozein ez betetzeak, hala egokituz gero, esleipendunari ondorengo zigorrak ezartzea eragingo du:

- Arau orokor gisa, zigorraren zenbatekoa kontratuaren esleipen-zenbatekoaren % 1ekoa izango da. Alabaina, Kontratazio Organoak, arrazoituta, egindako ez-betetzea larria edo oso larria izan dela jotzen badu, orduan zigorra %5 artekoa edo legez ezarritako gehieneko %10 artekoa ere izan daiteke, hurrenez hurren. Ez-betetzea behin eta berriz gertatzen bada, larritasuna baloratzeko kontuan hartu ahal izango da.

- Kontratistari ordaindu beharreko ordainketa oso edo partzialetatik, edo bermetik, zigorraren zenbatekoa deskontatzea izango da zigorrak ordaintzeko era, SPKLren 192 artikuluarekin bat etorriz.

Esleipendunak exekuzio-baldintza bereziak betetzen dituen ala ez edozein unetan egiaztatu ahal izango du Kontratazio Organoak kontratua burutzen ari den bitartean, eta edonola ere, obrei harrera egiten zaienean egiaztatuko da.

D) KONTRATUA AKATSAK DITUELA BETE BALDIN BADA.

Honako zigor hauek ezarriko dira kontratua akats hauekin bete baldin bada:

- Obrei harrera egiteko garaian, kontratistari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik, harrera egiteko moduan ez badaude.

- Arau orokor gisa, zigorraren zenbatekoa kontratuaren aurrekontuaren % 2koa izango da. Alabaina, Kontratazio Organoak, arrazoituta, egindako ez-betetzea larria edo oso larria izan dela jotzen badu, orduan zigorra % 5 artekoa edo legez ezarritako gehieneko % 10 artekoa ere izan daiteke, hurrenez hurren. Ez-betetzea behin eta berriz gertatzen bada, larritasuna baloratzeko kontuan hartu ahal izango da.

Dena dela ere, zigorrak jartzeak ez du esan nahi kontratistak ez dituenik akatsak konpondu behar, legez baitauka obligazio hori betetzeko betebeharra.

23. AZPIKONTRATAZIOA

Esleipendunak kontratuaren zati bat gauzatzeko lana hirugarrenekin kontratatzeko, SPKLren 215. artikuluan zehaztutako baldintzak beteko dira, eta azpikontratista eta hornitzaileei egin beharreko ordainketan SPKLren 216 artikuluan xedatutakoari jarraitu beharko zaio.

Horiek horrela, kontratista nagusiak bere gain hartuko du kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa udalaren aurrean, administrazio-klausula agiri honek jasotakoari eta kontratuaren nondik norakoei zorrozki lotuz, barne hartuta arlo sozialeko eta laboraleko betebeharrak betetzea.

24. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua suntsiarazi egingo da SPKLren 211. eta 245. artikuluetan adierazitako kasuetan. Kontratua suntsiarazteko erabakia kontratazio-organoak hartuko du, bere kabuz nahiz kontratistak eskatuta, kontratistari entzunaldia bermatzen zaion prozedura baten bidez, SPKLren 212 eta 246. artikuluetan eta APKLAOren 110etik 113. artikulura eta 172. artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

Kontratua suntsiarazten bada, proiektuarekin bat etorriz egindako obrak egiaztatu, neurtu eta likidatu egin beharko dira, eta kontratistaren alde edo aurka egoki diren saldoak zehaztu beharko dira.

Kontratua kontratistaren ez-betetze errudun baten ondorioz suntsiarazten bada, bermea konfiskatuko zaio eta, horrez gain, eragindako kalte eta galeren ordaina eman beharko dio Administrazioari, konfiskatutako bermearen zenbateko hori baino handiagoak baldin badira.

25. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Kontratu administratiboak interpretatzeko eta kontratu horiek betetzean sortzen diren zalantzak erabakitzeko prerrogatiba du kontratazio-organoak. Era berean, interes publikoko arrazoiengatik, kontratuak aldatu, haiek suntsitzea erabaki eta suntsitze horren ondorioak zehaztu ahal izango ditu, SPKLan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuan zehaztutako mugak, baldintzak eta ondorioak kontuan harturik.

26. HIZKUNTZA-BALDINTZAK

a) Zerbitzuan erabiliko den hizkuntzari buruz:

Enpresa esleipendunak, zerbitzua ematerakoan, Udalak bere hizkuntzazko jarduera arautzeko dituen planen arabera jokatuko du.

1) Hizkuntza paisaia:

Zerbitzua ematean enpresa esleipendunak obra egingo den eremuan jartzen dituen errotulu, seinale, ohar, kartel eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz idatziko dira.

2) Enpresaren eta Udalaren arteko harreman hizkuntzari buruz:

Enpresa esleipendunaren eta Udalaren arteko ahozko —bilerak, kontsultak...— nahiz idatzizko harremanak —fakturak, txostenak...— Udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da, euskaraz. Enpresa esleipendunak Udalarekin harremanetan aritzeko izendatuko duen pertsona elebiduna izango da.

b) Hizkuntza baldintzen jarraipenari eta ez betetzeari buruz

Kontratazioa sustatu duen udal sailaren arduradunak jarraipena egingo du zerbitzu hau emateko eskatu diren hizkuntza baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Hizkuntza baldintza horiek urratzeak zigor sistema aplikatzea ekar lezake Sektore Publikoko Legearen 192. artikuluari jarraituz.

IV. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

27. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, bereziki, Azaroaren 8ko, 9/2017 Legeak

Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, eta, halaber, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, ezarritako arauak bete beharko dira, baita herri-administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

28. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honek berarekin izaera pertsonaleko datuetan sartzea dakarrenean, enpresa kontratistak SPKLaren Hogeita Bosgarren Xedapen Gehigarrian finkatutako betebeharrak bete beharko ditu, Datu Pertsonalen Babesari buruzko 2018/1725 Europar Erregelamenduari eta Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Legeari dagokienez.

Enpresa esleipendunak konfidentzialtasun kontratu bat sinatu beharko du, kontratu nagusiarekin batera.

29. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren mende egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek hala nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorriz

Hernanin, 2022ko martxoa.

I. ERANSKINA: ARDURAPEKO ADIERAZPENA
ANEXO I: DECLARACIÓN RESPONSABLE

LIZITATZAILEA / LICITADOR	***I.F.K. - I.F.Z.*** / C.I.F. - N.I.F.	
HELBIDEA / DIRECCIÓN POSTAL	***HERRIA (K.P.)*** / *MUNICIPIO (C.P.)*	***TELEF.***
KONTRATUAREN XEDEA / OBJETO DEL CONTRATO	***ESPED. KODEA*** / CÓDIGO EXPEDIENTE	

Behean sinatzen duenak, jarduteko gaitasun juridiko osoaren jabe dela, eta bere izenean edo lizitatzailearen izenean,

BERE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DU:

I.- Lizitatzaileak badauzka kontratuaren xedea betetzeko beharrezko diren gaitasun juridikoa eta baliabideak eta ETE izateko baldintzak **[BAI] [EZ]** betetzen dituela.(*jarri X dagokion kasuan*).

II.- Sinatzaileak eskaintza aurkezten duen sozietatearen izenean jarduten duela eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko nahikoa duela sozietate horrek, edo bere kasuan, dagokion sailkapena duela, eta jarduera egiteko behar besteko baimenak dituela.

III.- Ez dagoela Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 71. artikuluak aipatzen dituen kontratatzeko debeku egoeretatik bakar batean ere.

IV.- Zerga eta Gizarte Segurantza obligazioak betetzen dituela, bai eta lan eta gizarte alorrean indarrean dauden xedapenak.

V.- Kaudimena kanpoko baliabideen bitartez osatuta dagoela:
1. **Bai**, SPKL legeko 75.2 artikuluak aipatzen duen konpromisoa betez.
2. **Ez.**

VI.- Lizitatzailea inskribatuta **[BAI] [EZ]** dagoela Estatuko edo Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialean, eta baiezko kasuan, ziurtagiria ofizioz eransteko baimena ematen duela. (*jarri X dagokion kasuan).*

VII.- Kontratuaren adjudikazioa eskuratzen badu, bere onespena ematen duela kontratuaren lizitazio-, adjudikazio- eta egikaritze-prozesuetatik ondorioztatuko datu guztiei gardentasun instituzionala emateko, harik eta prozesua amaitzen

El abajo firmante en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, actuando en nombre propio o en representación del licitador,

DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD:

I.- Que el licitador tiene capacidad jurídica y medios suficientes para cumplir con el objeto del contrato y **[SÍ] [NO]** cumple las condiciones de PYME *(señalar con una X lo que proceda)*

II.- Que el firmante ostenta la representación de la sociedad que presenta la oferta, que cuenta con la adecuada solvencia económica, financiera y técnica o, en su caso, la clasificación correspondiente y que cuenta con las autorizaciones necesarias para ejercer la actividad.

III.- Que no está incurso en ninguno de los casos de prohibición para contratar señalados en el artículo 71 del la Ley de Contratos del Sector Público.

IV.- Que está al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social y que cumple con las disposiciones vigentes en materia laboral y social.

V.- Que se integra la solvencia por medios externos:
1. Sí, existiendo el compromiso a que se refiere el artículo 75.2 de la LCSP.
2.No.

VI.- Que el licitador **[SÍ] [NO]** se encuentra inscrito en el Registro Oficial de Contratistas de Euskadi o del Estado y autoriza, en caso afirmativo, la incorporación de oficio del certificado*(señalar con una X lo que proceda*)

VII.- Que en el caso de resultar adjudicatario del contrato, manifiesta su conformidad en dar transparencia institucional a todos los datos derivados de los procesos de licitación, adjudicación y ejecución del contrato, hasta su finalización.

VIII.- Que, además de las anteriores, cumple con

den arte.

VIII.- Aurrekoez gain, Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako bestelako baldintza guztiak betetzen dituela. Horri lotuta, baldintza horiek egiaztatzeko konpromisoa hartzen du eskatzen zaion dokumentazioa aurkeztuz, esleipenduntzat proposatua den kasuan.

IX.- Atzerriko enpresaren kasuan, kontratutik zuzenean edo zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako, Espainiako edozein ordenatako epaitegi eta auzitegietako jurisdikzioaren pean jartzen dela, eta bere kasuan, egoki lekiokeen atzerriko foru jurisdikzionalari uko eginda.

todas las demás condiciones establecidas legalmente para contratar con la Administración. A estos efectos, se compromete a acreditarlas aportando la documentación que le sea requerida en caso de ser propuesto como adjudicatario.

IX.- En caso de empresa extranjera, que se somete a la jurisdicción de los Juzgados y Tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponderle.

DATUAK KONTSULTATZEKO BAIMENA (*)

Esleipendun gisa proposatua izatekotan, Hernaniko Udalari BAIMENA EMATEN DIO zergetako (Foru Ogasunari) eta Gizarte Segurantzari dagozkion obligazioak betetzen dituen kontsulta dezan eta helburu horretarako beharrezko informazioa lor dezan. Kasu honetan ez da beharrezkoa izango dokumentalki egiaztatzea.

(*) Inolako aukerarik ez markatzekotan, ulertuko da datuen kontsulta EZ dela baimetzen.

AUTORIZACIÓN PARA CONSULTA DE DATOS (*)

BAI / SÍ ❑
EZ / NO ❑

En caso de ser propuesto como adjudicatario, AUTORIZA al Ayuntamiento de Hernani para consultar si el licitador está al corriente de sus obligaciones fiscales (ante Hacienda Foral) y frente a la Seguridad Social, así como a obtener la información necesaria a tal efecto, en cuyo caso no resultará necesario acreditarlo documentalmente.

(*) En caso de no marcar ninguna opción, se entenderá que NO se autoriza la consulta de datos.

HELBIDE ELEKTRONIKO ERABILGARRIA

Jakinarazpenak egiteko "erabilgarri" egongo den helbide elektronikoa, SPKL legeko 15. xedapen gehigarrian jasotzen dena kontuan hartuz

DIRECCIÓN DE CORREO ELECTRÓNICO HABILITADA

Dirección de correo electrónico "habilitada" para efectuar las notificaciones, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición adicional 15ª de la LCSP:

EMAIL:

SINATZEKO LEGE-GAITASUNA

Dokumentu hau sinatzeko lege-gaitasuna dudala aitortzen dut.

FACULTAD LEGAL PARA LA FIRMA

Declaro que estoy facultado legalmente para firmar este documento,

IZEN-ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS		*SINADURA* / FIRMA
N.A.N. / D.N.I.	*DATA* / FECHA	

II. ERANSKINA: PROPOSAMEN EREDUA
ANEXO II: MODELO DE PROPOSICIÓN ECONÓMICA

LIZITATZAILEA / LICITADOR	***I.F.K. - I.F.Z.*** / C.I.F. - N.I.F.	
HELBIDEA / DIRECCIÓN POSTAL	***HERRIA (K.P.)*** / *MUNICIPIO (C.P.)*	***TELEF.***
KONTRATUAREN XEDEA / OBJETO DEL CONTRATO	***ESPED. KODEA*** / CÓDIGO EXPEDIENTE	

Behean sinatzen duenak, jarduteko gaitasun juridiko osoaren jabe dela, eta bere izenean edo lizitatzailearen izenean,

ADIERAZTEN DU:

I.-Ezagutzen dituela Proiektu Teknikoa bere edukiarekin, Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiria eta kontratu hau arautuko duen gainerako dokumentazioa ere, eta berariaz bere osotasunean onartzen dituela inolako salbuespenik gabe beteko dituelarik.

II. Ordezkatzen duen enpresak kontratu hau burutzeko indarrean dagoen araudiak eskatutako betebehar eta baldintza guztiak betetzendituela.

III.- Esleipenduna gertatuz gero, aipatutako lanak onartutako Baldintza Agirian zehazten diren baldintzen arabera eta espedientean zehaztutako gainerako aukerako baldintzen arabera beteko dituela beti.

IV.- Lanaren, zergaren eta Gizarte Segurantzaren alorretan legeek edo araudiek xedatzen dutena betetzera behartzen dela.

V.- Berariaz adierazten du, eskaintza egiteko garaian, kontuan hartu dituela enplegua babesteko alorrean, lan baldintzen eta laneko arriskuak prebenitzeko alorrean indarrean dauden xedapenetatik sortutako betebeharrak, bereziki Gipuzkoan aplikatzekoak diren jarduera-sektore haietako Hitzarmen Kolektiboak eta ingurumena babestekoak direnak.

Ondorio horrekin, adierazten du, esleipendun izanezgero, kontratuaren xede den jarduera burutuko duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa

El abajo firmante en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, actuando en nombre propio o en representación del licitador,

DECLARA

I.- Que conoce el Proyecto Técnico con su contenido, el Pliego de Cláusulas Económico-Administrativas Particulares y demás documentación que ha de regir el presente contrato, que expresamente asume y acata en su totalidad, sin salvedad alguna.

II.- Que la empresa a la que representa cumple con todos los requisitos y obligaciones exigidos por la normativa vigente para la realización del presente contrato.

III.- Que, en caso de resultar adjudicataria, realizará los citados trabajos con sujeción en todo caso a los requisitos y condiciones dispuestos en el Pliego aprobado, así como al resto de las condiciones facultativas fijadas en el expediente.

IV.- Que se obliga al cumplimiento de lo legislado o reglamentado en materia laboral, tributaria y de Seguridad Social.

V.- Que manifiesta expresamente haber tenido en cuenta en la elaboración de la oferta las obligaciones derivadas de las disposiciones vigentes en materia de protección del empleo, condiciones de trabajo y prevención de riesgos laborales, en particular los convenios colectivos de aquellos sectores de actividad que resulten de aplicación en Gipuzkoa, y de protección del medio ambiente.

A estos efectos, señala que el convenio colectivo de aplicación a los trabajadores y trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato, en caso de

ondorengoa dela:.....(.....Kodea).

Era berean, kontratua esleitu ondoren, aipatu langile horiei aplikatuko zaizkien lan baldintzen inguruan eskatuko zaion informazio oro kontratazio organoari ematera behartzen dela.

VI.- Esandako guztiaren arabera, konpromisoa hartzen duela zehaztutako lan horiek egiteko, ... euroko osoko prezioan (BEZa barne), honela banakatuta:

- Prezioa: ..... euro.
- BEZ aplikagarria (%.....): ..... euro.

Esandako prezioan kontzeptu guztiak barruan daudela ulertu behar da, eta hor: zergak, gastuak, arlo fiskaleko edozein tasa eta ordainketak sartzen dira, baita kontratistaren etekin industriala ere.

VII.- Nahitaezko bermeaz gain, ondoren zehaztutako berme epea eskaintzen duela:

....hilabete

VIII.- Emakumeak barneratuko dituela kontratuan (ekipo teknikoan edo obra exekuzioan), gutxienez ondorengo kopuruan:

□ 0. emakumezko
□ 1. emakumezkoa: %____ lanaldia
□ 2. emakumezkoa: %____ lanaldia
□ 3. emakumezkoa: %____ lanaldia
...

IX.-Enpresak ingurumen kudeaketa ziurtagiria baduela:

□ Ez
□ Bai, ondorengoa:
  □ EMAS
  □ ISO 14001
  □ EKOSCAN

resultar adjudicataria, es el siguiente:..... (Código....)

Igualmente, se obliga a facilitar al órgano de contratación cuanta información se requiera sobre las condiciones de trabajo que, una vez adjudicado el contrato, se apliquen efectivamente a esos trabajadores y trabajadoras.

VI.- Que se compromete, conforme a todo lo dicho, ejecutar los trabajos referenciados por un precio total de..... .....euros (IVA incluido), desglosado de la siguiente manera:

-Precio: ..... euros.
-IVA aplicable (.....%): ..... euros.

En el precio indicado deben entenderse comprendidos todos los conceptos incluyendo los impuestos, gastos, tasas y arbitrios de cualquier esfera fiscal al igual que el beneficio industrial del contratista.

VII.- Que se ofrece el siguiente plazo de garantia adicional:

.....meses

VIII.- Que incluirá mujeres en la ejecución del contrato (en el equipo técnico o ejecución de obra), como mínimo en el siguiente número:

□ 0 mujeres
□ 1ª mujer: dedicación ___%
□ 2ª mujer: dedicación ___%
□ 3ª mujer: dedicación ___%
...

IX.-Que la empresa cuenta con un certificado de gestión ambiental:

□ No
□ Sí, el siguiente:
  □ EMAS
  □ ISO 14001
  □ EKOSCAN

IZEN-ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS		*SINADURA* / FIRMA
N.A.N. / D.N.I.	*DATA* / FECHA	

III ERANSKINA

Prezio desglosatuen taula formatu editagarrian eransten da., aparteko dokumentu batean.

IV. ERANSKINA

ENPRESEK LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZ BETE BEHARREKO BALDINTZA-AGIRIA, PROZEDURA IREKIA BIDEZKO OBRA KONTRATUETARAKO.

Baldintza agiri honen helburua hau da: Hernaniko Udalaren zentroetan edo, beste zentro batzuetan baina Hernaniko Udalaren kontura, lan egite aldera prozedura ireki bidez esleitzen diren obra guztietako kontratistek laneko arriskuak prebenitzeko gaiaren inguruan bete beharreko obligazioak finkatzea.

Baldintza agiri hau administrazioko kontratuarekin batera joango da eta orri bakoitzaren bi aldeetan sinatua egongo da.

Enpresa kontratistak lan arloan, gizarte segurtasun arloan eta laneko arriskuen prebentzio arloan indarrean dauden xedapenak bete behar ditu, eta bereziki hauek:

1.- Egin beharreko lanak lan-ordenantza edo lan-hitzarmenen baten baitan egitekoak baldin badira, enpresa kontratistak dagokion lan-ordenantzan edo lan-hitzarmenean ezarritakoak bete behar ditu.

2.- Enpresak kontratistak hartu beharreko neurriak hartu behar ditu langileen bizitzan, osotasun fisikoan nahiz osasunean eragin dezaketen arriskuei aurre hartzeko.

3.- Horrez gain, indarrean dagoen araudiak laneko arriskuen prebentzioari buruz ezartzen dituen betebeharrak ere beteko ditu.

I. JAKINARAZTEKO BETEBEHARRA

3. Eskaintza-fasea

Kontratistak honako hau jakinarazi beharra dauka eskaintzan:

1.1.-Sektore publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan jasotakoaren arabera Administrazioarekin kontratatzeko inolako debekutan sartuta ez egotearen ardurapeko adierazpena., espresuki aipatuz, lan arriskuen prebentzioaren alorrean arau hauste oso larria egiteagatik zigor irmorik jaso ez duela.

1.2.- Honako hauek bermatzeko zinpeko aitorpena:

- Badaukala Prebentzio Plana, Lan-Arriskuen Prebentziorako Legean eta haren garapenerako xedapenetan ezarritakoaren araberakoa.

- Hernaniko Udalaren instalazioetan lan egingo duten langileen lanpostuetako Arriskuen Ebaluazioa egina daukala, eta arriskuak saihesteko prebentzio eta babes neurriak badauzkala.

- Enpresaren langileek gure instalazioetan egin beharreko lanen ondorioz Hernaniko Udaleko edo beste enpresetako langileei eragin diezaieketen arriskurik sortuz gero, horien berri emango duela.

- Enpresa kontratistak Hernaniko Udalean lan egingo duten bere langileei lanpostuaren arrisku orokor eta zehatzei buruzko formazioa eta informazioa emango diela.

- Enpresak bere langileei lan zentroko arriskuei eta hartu beharreko neurriei buruzko informazioa emango diela, eta larrialdietan egin beharrekoari buruzkoa. Hori guztia, Hernaniko Udalak emango dion informazioan oinarrituta.

- Enpresak langileei beren lana egiteko behar dituzten babes kolektiboko neurriak eta norbera babesteko ekipoak emango dizkiela, bai eta lan ekipoak eta produktuak ere, behar bezala ziurtatuak eta indarrean dagoen legediaren araberakoak.

- Kontratistaren kargu lan egingo duten langile guztiek, beren lana egiteko beharrezkoa den gaitasuna izango dutela, eta, hala behar izanez gero, ziurtagiri ofizialak eguneratuak dituztela.

- Enpresa kontratistak bere kargura dituen langileen osasun azterketak egin dituela, ezarritako protokolo medikuekin eta arrisku espezifikoen arabera.

- Kontratistak Hernaniko Udaleko lan zentroan egon beharreko errekurtso prebentiboak izendatuko dituela, behar baldin bada, Lan Arriskuen Prebentziorako 31/1995 Legearen esparru arauemailearen erreformarako 54/203 Legeak ezartzen duenaren arabera eta 39/1997 ED-ak eta horren aldaketa dakarren 604/2006 ED-ak ezarritakoaren arabera.

- Langileei edota Hernaniko Udalaren instalazioetan dagoen edozein pertsonari osasunerako kaltegarria den edozein istripu edo gorabehera gertatzen bazaie, enpresa kontratistak Hernaniko Udalari idatziz berehala jakinaraziko diola.

- Enpresa kontratistak azpikontraturik eginez gero, azpikontratatutako enpresek ere betebehar eta ardura berdinak izango dituztela. Enpresa kontratistaren ardura izango da azpikontratatutako enpresei behar den dokumentazioa eskatzea eta betebeharrak betetzen dituela ziurtatzea. Halaber, eraikuntzako azpikontratazioa arautzen duen 32/2006 Legeak arautzen duena bete beharko dute, eta hura garatze aldera onartutako 1109/2007 ED-ak agintzen duena ere bai.

1.3.- Enpresak oinarrizko arriskuak prebenitzeko hartutako kudeaketa-sistema (Prebentziorako Berezko Zerbitzua, Kanpoko Prebentziorako Zerbitzua (esan zein) edo sistema mistoa (Kontzertu partziala Kanpoko Prebentziorako Zerbitzuarekin + bere gain hartutako jarduerak prebentziorako izendatutako langilearekin edota berezko teknikariarekin).

2.- Exekuzio-fasea

2.1.- Jarduera hasi baino lehen

Jarduera hasi baino lehen kontratistak honako hau jakinaraziko dio Hernaniko Udalari idatziz:

- Laneko Segurtasun eta Osasun Plana, Segurtasun eta Osasun Azterketan oinarritua, edo bestela, Oinarrizko Azterketa (obra-proiektua beharrezkoa bada) edo, horren ordez, arriskuak aztertu eta prebenitze aldera obra horretarako egindako dokumentua (obra-proiektua beharrezkoa ez bada).

- Kontratistak enpresan obra burutzeko izango duen arduradunaren izena, eta hala behar izanez gero, segurtasun eta osasun koordinatzailearena, prebentzioko delegatuena eta lanean diharduten langileen izenen zerrenda, azpikontratetako langileena barne (izen-abizenak, nortasun agiria eta lanbide-prestakuntza adieraziko dira).

- Arriskuen ebaluazioari lotutako baliabide prebentiboak behar dituzten lanpostu edota jardueren zerrenda.

- Kontratuan parte hartuko duten langile guztiek, bai enpresa kontratistakoek bai eta azpikontratakoek ere, arrisku espezifikoei buruzko, babesteko neurriei buruzko eta larrialdietarako neurriei buruzko informazioa jaso dutela egiaztatzen duen agiria, eta beren lanak dituen arriskuen inguruan behar duten formazioa jaso dutela egiaztatzen duena.

2.2.- Obren exekuzio-fasean.

Lanek irauten duten bitartean kontratistak enpresan duen arduradunak honako hau jakinaraziko dio kontratako arduradunari idatziz:

- Kontrataren jardueran eragin dezakeen edozein aldaketa garrantzitsu edo langileen nahiz lanean ari diren zentroko langileen segurtasun eta osasunean eragin dezakeen edozein gorabehera. Idatzian aldaketa horrek kontratako nahiz enpresako langileen segurtasun eta osasunari lotuta sortu dituen beharren berri emango da.

- Kontratako langileren batek istripurik izan badu, horren berri. Komunikazio idatzian istripuaren nondik-norakoak, lesioen ondorioak, arrazoiak eta istripuarekin lotuta egindako ekintzak azalduko dira.

3.- Obra amaiera

Eraikuntza Lanetarako Araudia ezartzen duen 38/1999 Legeak 7. atalean jasotzen duenari jarraituz, egindako obraren dokumentazioari eraikina eta haren instalazioak erabiltzeko eta mantentzeko jarraibideak erantsiko zaizkio, aplikagarri zaion arautegiaren arabera.

II. KONTRATEN JARDUERA OBRAK IRAUTEN DUEN DENBORAN.

1. Lanak hasi baino lehen kontrataren arduradunak, eta hala badagokio, kontrataren segurtasun koordinatzaileak, lana egingo den eremua ikustera joango dira, obraren jarraipena egiteko arduradunarekin eta Hernaniko Udalak izendatutako segurtasun eta osasun koordinatzailearekin batera. Ikustaldi horretan eremua mugatuko da, eta segurtasun arrazoiengatik fisikoki mugatzea komeni den ala ez erabakiko da (sokaz inguratu, itxiturak egin, barandak jarri, eta abar). Era berean, ikustaldi horretan erabakiko da obrak irauten duen bitartean segurtasunerako zer-nolako seinaleak erabiliko diren eta haiek non jarriko diren. Gainera, mugatutako eremura sartzeko eta bertan egoteko nahitaez erabili beharreko NBA definituko da.

2. Ezin da eraikuntza-lanik hasi dagokion laneko segurtasun eta osasun planik izan gabe (1627/1997 ED-aren 7 artikuluak dioenaren arabera) -betiere plana nahitaezkoa bada- eta obran esku hartzen duten kontratisten eta enpresa kontratugilearen arteko koordinatzaileek aurrez bilerarik egin gabe. Eraikuntza Lanetarako Araudiaren 5.6 eta 6.3 artikuluek diotenari jarraiki, segurtasun eta osasun azterketan edo oinarrizko azterketan kontuan hartuko dira, gerora, segurtasun eta osasun baldintza egokietan egiteko aurreikusitako lanetan erabilgarriak izan daitezkeen aurreikuspenak. Koordinazio-bileran, kontratistek lanen planifikazioa aurkeztuko dute, eta hartu beharreko segurtasun-neurriak adieraziko dituzte. Ez da inolako jarduerarik hasiko lanen plangintzak aurreikusitako segurtasun-neurriak hartu gabe.

3. Kontratistak Hernaniko Udalak izendatutako Segurtasun eta Osasun koordinatzaileari eskatuko dio obrarekin bateragarriak ez diren jarduerak zehatz ditzala, eta idatziz adieraz dezala debekatua dagoela bateragarria ez den jarduerarik obrarekin batera egitea.

4. Kontratistaren aldetik lanen bat egin behar duen edonork horretarako prestakuntza egokia izango du, eta egokia bada, behar bezala eguneratutako ziurtagiri ofizialak izango ditu; era berean, Hernaniko Udalarentzat egiten duen lanari buruzko prestakuntza eta jarraibide bereziak izango ditu, bereziki segurtasunari eta osasunari dagozkionak.

5. Enpresa "kontratistaren" langileak prebentziozko neurriak urratu izanaren ondorioz lan-administrazioko agintaritzak Hernaniko Udalari isunen bat jarriko balio, Hernaniko Udalak eskubidea izango du enpresa "kontratistaren" aurka dagozkion legezko ekintzak hasteko.

Aurreko paragrafoak dioena gorabehera, enpresa "kontratistak" prebentziozko neurriak beteko ez balitu, Hernaniko Udalak isun ekonomikoa jarri ahal izango dio enpresa "kontratistari", eta isun hori kontrataren aurrekontuaren %5 artekoa izan daiteke. Enpresa "kontratistak" behin eta berriz urratzen baditu aipatutako neurri horiek, Hernaniko Udalak eskubidea izango du uneko ordainketa eta ziurtagiriak atxikitzeko eta, halaber, kontratua amaitutzat emateko, enpresa "kontratistak" kalte-ordainak jasotzeko inolako eskubiderik izango ez duelarik. Gainera, Hernaniko Udalak enpresa "kontratistari" arau-hauste horretatik eratorritako kalteak eskatu ahal izango dizkio.

6. Kontratistak obra egiteko edo kontratatutako zerbitzua betetzeko erabiltzen dituen materialek eta ekipamenduak, hala norberaren babeserako nahiz babes kolektiborako materiala nola lanak burutzeko materiala, laneko arriskuak prebenitzeko indarrean dagoen araudia bete beharko dute, eta Hernaniko Udalak eskuragarri izango ditu hori horrela dela ziurtatzen duten ziurtagiriak.

7. Hernaniko Udalaren zentroren batean edo Hernaniko Udalan kontura lan egiten duten langile guztiek beren jarduerarako egokia den jantzia eramango dute, garbia eta txukuna.

8. Hernaniko Udalaren zentroren batean edo horren kontura lan egiten duenoro behar bezala identifikatua egongo da, eta baita ere ibilgailuak eta enpresan dauden denboran erabiliko dituzten ekipamenduak ere.

9. Ildo horretatik, egunean izan beharko ditu Gizarte Segurantzako, Langileen Mutualitateko eta Lan-istripuen Aseguruko kuotak.

Langile guztiek ezagutuko dituzte honako datu hauek:

- Enpresak kontratatua duen Lan-istripu eta Gaixotasun Profesionalen Mutualitatearen izena.

- Zein osasun zentrotara eramango duten, behar izanez gero.

ERANSKINA

ZINPEKO AITORPENA

Nik, ... jn./and., helbide honetan bizi naizenak: .... eta NAN zk. hau dudanak: ..... enpresa honen ordezkari edo/eta administrazioko arduradun gisa: ..... (helbidea: ..... IFZ: .....)

ZIN EGITEN DUT:

1. ..... enpresak lan arriskuen prebentziorako gaur egungo irizpideak bere egin dituela eta kontuan izaten dituela, eta Lan Arriskuen Prebentziorako Legeak eta hura garatzeko xedapenek diotenarekin bat datorren prebentziorako plana ere baduela.

2. .....enpresak Hernaniko Udalarentzat lan egingo duten langileei beren laneko arriskuei buruzko informazioa eta arrisku horiek saihesteko behar diren prebentzio eta babes neurriei buruzko informazioa emango diela.

3. .....enpresak Enpresaren langileek Hernaniko Udalaren instalazioetan egin beharreko lanen ondorioz Hernaniko Udaleko edo beste enpresetako langileei eragin diezaieketen arriskurik sortuz gero, horien berri emango duela. Eta, horrez gain, enpresak bere langileei lan zentroko arriskuei eta larrialdietan egin beharrekoari eta hartu beharreko neurriei buruzko informazioa emango diela.

4. .....enpresak Hernaniko Udalean jardungo duten bere langileei haiek beren lana burutzeko behar duten Segurtasun eta Osasun arloko formazioa emango diela.

5. .....enpresak Hernaniko Udalean jardungo duten bere langileei haiek beren lana gauzatzeko egokiak eta beharrezkoak diren babes neurriak emango dizkiela, eta babes neurri horiek norbera babesteko ekipoentzat eta lan ekipoentzat indarrean dauden irizpide legalak betetzen dituztela.

6. Hernaniko Udalarentzat lan egingo duten ..... enpresako langile guztiek behar den kualifikazioa daukatela, eta, behar izanez gero, hori egiaztatzen duten ziurtagiriak ere bai.

7. .....enpresak Hernaniko Udaleko lan zentroan egon beharreko errekurtso prebentiboak izendatuko dituela, behar baldin bada, Lan Arriskuen Prebentziorako 31/1995 Legearen esparru arauemailearen erreformarako 54/203 Legeak ezartzen duenaren arabera eta 39/1997 ED-ak eta horren aldaketa dakarren 604/2006 ED-ak ezarritakoaren arabera.

8. ..... enpresak Hernaniko Udalari idatziz berehala jakinaraziko diola langileei edota Hernaniko Udalaren instalazioetan dagoen edozein pertsonari osasunerako kaltegarria den edozein istripu edo gorabehera gertatzen bazaie.

9. .....enpresak azpikontraturik eginez gero, azpikontratatutako enpresek ere betebehar eta ardura berdinak izango dituztela. ..... enpresaren ardura izango da azpikontratatutako enpresei behar den dokumentazioa eskatzea eta betebeharrak betetzen dituela ziurtatzea. Halaber, eraikuntzako azpikontratazioa arautzen duen 32/2006 Legeak arautzen duena bete beharko dute, eta hura garatze aldera onartutako 1109/2007 ED-ak agintzen duena ere bai.

10. ..... enpresak Prebentziorako Zerbitzuen Arautegian ezarritako irizpideak betetzen dituela eta, horren ondorioz, prebentziorako zerbitzua bere egiten duela edo zeregin horiek prebentziorako kanpoko zerbitzu honekin kontratatu dituela.....

11. .....enpresak Hernaniko Udalarentzat lan egingo duten bere langileen osasun azterketak egin dituela, ezarritako protokolo medikuekin eta arrisku espezifikoen arabera.

12. .....enpresak bere langileen lan ezbeharren kopuruak ikertzen eta kontrolatzen dituela.

13. .....enpresak hitz ematen duela Lan Arriskuen Prebentziorako 31/1995 Legeak 24 artikuluan koordinazio neurriei buruz agintzen duena eta urtarrilaren 30eko 171/2004 ED-ak 24. artikulu hori osatze aldera agintzen duena zorrotz beteko duela.

....., 202.....ko .....ren .....(a).
Sin.: ..... NAN:.....